



Tolosaldeko Lurraldearen Zatiko Planaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa. Kasu praktiko bat

Arritxu Zelaia Etxeberria (*Artez euskara zerbitzuko hizkuntza normalizazio teknikaria*)

azelaia@artez.net

Goizane Arana Arexolaleiba (*UEMAko euskara teknikaria*)

arnasguneak@uema.eus

Sarrera-data: 2015-03-30 | Onartze-data: 2015-06-25

Laburpena. Eragin linguistikoaren ebaluaziorako tresna Tolosaldeko Lurraldearen Zatiko Planean aplikatu zen 2014ko maiatzean. Artez Euskara Zerbitzua arduratu zen tresnaren aplikazioaz, hirigintzako eta soziologia alorreko adituekin elkarlanean. Lehen kasu praktiko honek emaitza positiboak utzi ditu, inondik ere: batetik, baliagarria dela frogatu ahal izan dugu; eta, bestetik, lehen aldiz diziplina anitzeko adituak elkarlanean jarri ditu hizkuntzaren prebentzioaren gaia ardatz izanik. Lan-molde berri baterako bidean urratsak eman dira, baina ezin da ukatu bide luzea dugula oraindik egiteko. Eragin linguistikoaren ebaluaziorako tresnaren aplikazioa beharrezkoa izateko neurriak hartzea izango da hurrengo urrats nagusia eta bertan jasotako neurri zuzentzaileak lotesleak izan daitezen marko juridikoa aldatzea. • **Hitz gakoak:** eragin linguistikoaren ebaluazioa, hizkuntzaren prebentzioa, tresna, diziplina anitzeko lantaldea, haus-kortasun indizea, ezagutzaren proiektzioa, neurri zuzentzaileak.

Abstract. The tool for evaluating language influence was applied in the Partial Plan of the Tolosa Area in May, 2014. The Artez Basque Service undertook to apply the tool in collaboration with experts in the areas of urban planning and sociology. There is no doubt that this first practical case has produced positive results: firstly, we have been able to show that it is useful; and secondly, it is the first time that experts from a broad range of disciplines have worked together on the subject of the prevention of language obstacles. Steps have been taken for a new system of work, but there is no doubt that there is still a long way to go. The next main step will be to take the measures needed to apply the tool for evaluating language influence and to change the legal framework so that the corrective measures gathered in it can be made binding. • **Key words:** evaluation of language influence, language obstacle, tool, multidisciplinary working team, fragility index, knowledge projection, corrective measures.

SARRERA

I

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UEMAk Eragin Linguistikoa ebaluatzeko (ELE) tresna sortu ondotik, beraren eraginkortasuna eta balioa egiaztatu ahal izateko, tresna praktikan jartzea izan zen egokituko zen hurrengo urratsa. Hori horrela, kontuan izanda Tolosaldean Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren (LZP) lanketan murgilduta zeudela, eta, planaren gauzapena Aldundiaren eskumenekoa zela, aukera hori baliatu beharra zegoela baloratu zen. Hortaz, Hirigintza eta Lurraldearen antolaketako ordezkariak ELE tresna LZPari aplikatzeko proposamena egin zitzaion; eta, proposamena begi onez hartu zutela ikusirik, hizkuntza aholkularitza enpresei eskaini zitzaion ebaluazio tresna proban jartzeko aukera. Aurkeztutako eskaintzen artean Artez Euskara Zerbitzuarena egokiena zela baloratu zen, eta, horrela, lehenengo eragin linguistikoaren ebaluaziorako lana egiteko enkargua eman zitzaion.

UEMAko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko ordezkariak ELE tresna aurkeztu zion ebaluazio lantaldea osatuko zuten kideei, eta beraien esku utzi zen tresna aplikatzeko egitekoa. Bi helburu nagusirekin eman zen enkargua:

- Tresnaren baliagarritasuna ikustea eta ekarpenak egitea.
- Eragin linguistikoaren ebaluazioa egitea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.

Ebaluazio lana egiteko hiru arlo desberdinetako profesionalen osatutako lan-taldea osatu zuten: batetik; Torrene Consulting, soziologia aholkularitza, bestetik, Bai Arkitektura Bai Hirigintza, hirigintza arloko aholkularitza eta Artez Euskara Zerbitzua hizkuntza aholkularitzaren arloan. Lurralde antolaketaren eta hirigintza planifikazioak duen eragin linguistikoaren adibide praktikoa izan zen burututako lana.

Ondokoak dira, zehazki, lan-taldean parte hartu zuten profesionalak:

- Goio Allika Anduiza arkitektoa
- Iurdana Txintxurreta Rotaetxe arkitektoa
- Iñaki Ruiz De Pinedo soziologoa
- Teresa Roca Fernández soziologoa
- Estiñe Astorkia Kortabitarte hizkuntza normalizazio teknikaria
- Arritxu Zelaia Etxeberría hizkuntza normalizazio teknikaria

LZPak planaren eremu funtzionalean euskararen ezagutzan izango duen eragina aztertzeke, oinarritzat hartu dira etxebizitza hazkundeak eta ekonomia jarduerak ezartzeak ekarriko dituen biztanleria aldaketak.

Ondorengo lerroetan 2014ko maiatzean talde profesional honek egindako hizkuntzaren inaktuaren ebaluazio lanak emandako emaitza aurkeztuko zaizue, beraz.

Artezen eskutik egindako lana ELEren lehen uzta izan da. Ikusi ahal izango duzuen bezala, gainera, egindako ekarpenak handiak izan dira, aurrera begira ELE tresnan jasota geratuko direnak, noski.

TOLOSALDEARI ETA LZPARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

I

Tolosaldeko eskualdeko biztanleria 4 udalerrri nagusietan biltzen da batez ere (Tolosa, Villabona, Ibarra eta Zizurkil). 2006an, eremu funtzionaleko biztanleriaren %69 bizi ziren udalerrri horietan. Lau udalerrri hauek bi hiri-aglomeratu eratzen dituzte (Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil), eta hauek buruak dira eremu funtzionalean bereiz daitezkeen bi lurralde eremuetan.

Era berean, biztanleria eta garapenari lotutako irakurketa batetik abiatuta, esanguratsua da Oria haranaren ondoan ezarritako korridoreak eskualdean duen protagonismoa. Korridore horren gainean zuzenean kokatutako 9 udalerriek eremuko biztanleria osoaren %81 hartzen zuten 2006. urtean. Irudi horri kontrajarrita, eremu funtzionaleko biztanleria txikiko udalerrri kopuru handia dago: eremuko 28 udalerrietatik 16 ez ziren 500 biztanlera iristen 2008. urtean.

Etorkizuneko irudia laburbilduz, eskualdeko biztanleria nolabait ere egonkorra aurreikusten da 2006-2026 aldirako. Hala, LZPak proposatzen duen lurralde ereduaren definizio eta dimentsionamenduak iraunkortasuna eta orekaren irizpideak izango ditu abiapuntu. Batetik, garapen iraunkorraren eskutik, bizi-kalitatearen areagotzea aurreikusten da. Bestetik, lurraldearen erabilera arrazionala egitea da planaren xedea (baliabideen ustiapenerako mugak ezartzea, lurraldearen harrera-ahalmena errespetatzea, etab.).

LZParen gaitasunen artean, ondorengoak nabarmendu daitezke: herrien arteko koordinazioa ahalbidetzeko baldintzen ezarpena eta bizitegien zenbatespena.

Planak izan dezakeen eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteko, ezinbestekotzat jo da eremu funtzionalaren egungo egoera eta LZPk aurreikusitakoa alderatzea, betiere, kontuan izanik, esku-hartzeak osotasunean gauzatu direla.

LZPak planaren eremu funtzionalean euskararen ezagutzan izango duen eragina aztertzeko, oinarritzat hartu dira etxebizitza hazkundera eta ekonomia jarduerak ezartzeak ekarriko dituen biztanleria aldaketak .

Tolosaldeko biztanleen %71 euskalduna da, eta ezagutzaren portzentajea udalerriz udalerrira aldatzen da, Ibarako %65,1etik hasi eta Baliarrain %94,1 bitartean.

Udalerririk hiru kategoriatan banatu dira (A: hiriburutzen sistemako hiriguneak, B: tamaina ertaineko hiriguneak eta C:landa esparruetako guneak) eta eskualdean 4.100 etxebizitza berri eraikitzeke aurreikuspena abiapuntu, herri bakoitzeko etxebizitza-hazkunderaren zenbatespena kalkulatu da, estimazio bidez. Eragiketa horrek ahalbidetu du, batik bat, etorkizuneko egoeraren irudikapena.

METODOLOGIARI BURUZKO ARGIPENAK

I

Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko, aurrerago ikusi ahal izango duzuen moduan, hiru galdetegi betetzea proposatzen du ELE tresnak: laburra, zehatza eta faktorez faktorekoa.

Eragin linguistikoa neurtzeko tresnaren galdetegi zehatzak bost ataletan banatuta dauden 33 faktore jasotzen ditu, guztiak baloratu beharrekoak.

Atalak honela banatuta daude:

- Bizi Kalitatea
- Ekonomia
- Azpiegiturak
- Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza
- Biztanleriaren ezaugarriak

Bada, faktore horietako bakoitza Lurraldearen Zatiko Planean jasotzen diren bost arlo nagusien arabera baloratu zituen ebaluazio lantaldeak:

- Ekipamenduak
- Etxebizitza hazkundera
- Azpiegiturak
- Industria/ekonomia
- Ingurumena

Eragin linguistikoaren indizea kalkulatzeko 11 atributu baloratu behar izan ziren baiezko erantzuna emandako faktore bakoitzeko, eta, bukaeran, atal (bizi-kalitatea, ekonomia, azpiegiturak...) bakoitzaren batez besteko indize orokorra kalkulatu.

1. taula. Eragin linguistikoaren indizea kalkulatzeko atributuak

	FAKTOREAK	ATRIBUTUAK											
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	
ALDERDIAK	Bizi kalitatea	1	Eraginaren mota	Eragina	Hedadura	Unea	Irakurtasuna	Intentsitatea	Itzulgarritasuna	Berreskuragarritasuna	Sinergia	Metaketa	Aldizkakotasuna
		2											
		3											
		4											
	Ekonomia	5											
		6											
		7											
		8											
		9											
		10											
		11											
		12											
		13											
	Azpiegiturak	14											
		15											
		16											
		17											
		18											
		19											
	Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza	20											
		21											
		22											
		23											
		24											
		25											
		26											
Biztanlerien ezaugarriak	27												
	28												
	29												
	30												
	31												
	32												
	33												

Indizea kalkulatzeko formula honakoa da:

$G = -1 + (3 \times \text{intentsitatea} + 2 \times \text{hedadura}) + \text{unea} + \text{iraunkortasuna} + \text{itzulgarritasuna} + \text{sinergia} + \text{metaketa} + \text{eragina} + \text{aldizkakotasuna} + \text{berreskuragarritasuna}$

Eraginaren garrantziaren balioak 13 eta 100 bitartean mugitzen dira eta honela sailkatzen dira:

2. taula. Eragin linguistikoaren garrantziaren balioak

ERAGINAREN GARRANTZIA	BALIOA GUZTIRA
Garrantzi gutxikoak	< 25
Moderatuak	25 - 50
Larriak	50 - 75
Kritikoak	> 75

Diziplina anitzeko lantaldeak puntuazioak emateko oinarri bezala hartu zuen arlo desberdinetako ezagutza (hirigintzako, soziala eta linguistikoa). Informazio hori bigarren mailako datuak bilduz eta indizeak eraikiz lortu zen. Faktore bakoitzari bere eragin mota positiboa edo negatiboa emateko kontuan izan zen hizkuntzarentzako arrisku potentziala, prebentzioaren ikuspuntutik. Tresna osatzen duten elementuei puntuazioa emateko metodoa adostasunez egin zuen lantaldeak.

Bada, informazio osagarria jasotze aldera, ELE tresnak proposatzen ez zituen hiru indize berri kalkulatu ziren herriz herri:

- Hauskortasun indizea
- LZParen eraginaren indizea
- Euskararen ezagutzaren proiektzio indizea

Hauskortasun indizea

Indize honen helburua da udalerrriak inpaktu linguistikoaren aurrean bere izaera soziolinguistikoa galtzeko duen arrisku maila neurtzea.

Indizea aldagai hauez osatuta dago: biztanle kopurua, euskaldun portzentajea, etxean euskaraz egiten duten pertsonen portzentajea, euskara lehen-hizkuntza duten pertsonen portzentajea, UEMAKo udalerrriak eta EBPn daukatenak.

Faktore bakoitzari bere eragin mota positiboa edo negatiboa emateko kontuan izan zen hizkuntzarentzako arrisku potentziala, prebentzioaren ikuspuntutik.

Indizea 3 eta 22 puntu artekoa izan daiteke. Puntuazioaren arabera hiru tarte ezarri dira:

- 22 eta 15 punturen artean Hauskortasun handia
- 14 eta 8 punturen artean Hauskortasun ertaina
- 8 eta 3 punturen artean Hauskortasun txikia

FORMULA: $((\text{etxeko hizkuntza} \times 2) + \text{euskaldunak} + \text{ama hizkuntza})/3$
 $+ (\text{herriaren tamaina} + \text{euskara babesa})$

LZParen eraginaren indizea □

Indize horren helburua da LZParen barruko ekintzek hizkuntzarengan izango duten eragina neurtzea.

Indizea 8 eta 47 puntu artekoa izan daiteke. Puntuazioaren arabera hiru tarte ezarri dira:

- 47 eta 35 puntu bitartean eragin handia
- 34 eta 21 puntu bitartean eragin ertaina
- 20 eta 8 puntu bitartean eragin txikia

FORMULA: $(\text{Etxebizitza} \times 5) + ((\text{Euskaldunak} + \text{Etxeko hizkuntza} + \text{Lehen Hizkuntza})/3) + \text{hurbiltasuna} + \text{euskara babesa} + \text{jarduera ekonomikoak}$.

Euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizea □

Indize honek bizitegi-asetamendu berrien ondorioz euskararen ezagutzak izango duen bilakaera kalkulatu du.

Planean aurreikusitako bizitegi-asetamendu kopuru handiena beteko delako hipotesian oinarritu zen lantaldea. Etxebizitza berrietako familien tamaina hirukoa izango zela kalkulatu zen.

3. taula. LZP hazkundeak

Udalbarrutia	Bizitegi berrien kopurua (Etxebizitzak)	Biztanleak (Etxeak x 3')
Abaltzisketa	12	36,0
Aduna	14	42,0
Albiztur	12	36,0
Alegia	125	375,0
Alkiza	13	39,0

Altzo	14	42,0
Amezketeta	65	195,0
Anoeta	254	762,0
Asteasu	60	180,0
Baliarrain	6	18,0
Belauntza	12	36,0
Berastegi	40	120,0
Berrobi	41	123,0
Bidania-Goiatz	19	57,0
Elduain	10	30,0
Gaztelu	9	27,0
Hernalde	13	39,0
Ibarra	565	1695,0
Ikaztegieta	35	105,0
Irura	80	240,0
Larraul	8	24,0
Leaburu	15	45,0
Lizartza	40	120,0
Orendain	8	24,0
Orexa	6	18,0
Tolosa	1.670	5010,0
Villabona	404	1212,0
Zizurkil	550	1650,0
E.F. guztira	4.100	12300,0

Biztanle euskaldunen ezagutza-tasa kalkulatzeko, kontuan izan ziren guztizko biztanleria eta migrazio-prozesuaren ondorioz egongo diren biztanle euskaldunak.

Etxebizitza horietara sartuko diren biztanleak egungo migrazio-joeren arabera kalkulatu ziren:

4. taula. Biztanle berrien jatorriaren aurreikuspena

Tolosaldekoak	%40,0
Gipuzkoako gainerako lekuetakoak	%20,4
EAEko gainerako lekuetakoak	%1,2
Nafarroakoak	%1,2
Espania eta atzerria	%37,2
Biztanle berriak	%100

Migrazio horien jatorria elementu erabakitzaileetako bat izan zen euskararen ezagutza kalkulatzeko.

5. taula. Euskararen ezagutza jatorriaren arabera

	Tolosaldea	Gipuzkoa:	Nafarroa	Gainerako EAE	Kanpoko Immigrazioa*
Erdaldunak	%13,2	%33,7	%80,7	%56,8	%99,0
Pasiboak	%15,8	%16,4	%7,6	%17,8	%1,0
Euskaldunak	%71,0	%49,9	%11,7	%25,4	%1,0

* Estatutik edo atzerritik etorriak

Indize horien bidez bizitegi-asentamendu berrietako biztanleen banaketa kalkulatu zen, euskararen ezagutzaren arabera.

Biztanle euskaldunen ezagutza-tasa kalkulatzeko, kontuan izan ziren guztizko biztanleria eta migrazio-prozesuaren ondorioz egongo diren biztanle euskaldunak.

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

I

Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko, hasieran esan bezala, hiru galdetegi bete behar izan ziren ELE tresnak proposatzen duen gisara: laburra, zehatza eta faktorez faktore.

Galdetegi laburrean erantzunetako bat baiezkoa izanez gero, ondorengo galdetegi zehatza bete beharko zen eragina zenbaterainokoa den neurtzeko.

Galdetegi laburra:

Erantzun guztiak baiezkoak izan ziren.

6. taula. ELE. Galdetegi zehatza

Adierazlea	Bai/Ez	Azalpen laburra
Biztanleriaren euskararen ezagutzan - Euskaldun kopuruan	Bai	Etxebizitza berriak eta jarduera ekonomiko berria aurreikusi da. Beraz daitekeena da hiztun kopurua aldatzea.
Biztanleen euskararen erabileran - Gizarte-bizitzaren hizkuntzan	Bai	Etxebizitza berriak aurreikusi dira. Ekipamendu zentralak sortuko dira. Garraio bideak aldatu, hobetu, berri eta indartuko dira. Mugikortasuna eragingo du Beraz daitekeena da euskararen erabileran eragitea.
Biztanleriaren adin-egituran	Bai	LZParen helburuetako bat biztanleria zahartzea ekiditea da. Etxebizitza berriak aurreikusi dira; ondorioz, biztanle berriak erakarriko dituzte. Beraz, daitekeena da adin egituran eragitea
Jardueren/zerbitzuen komunikazioan	Bai	Jarduera/zerbitzu berriak aurreikusi dira. Beraz, daitekeena da komunikazioan eragitea.
Jardueren/zerbitzuen hizkuntza paisaian	Bai	Jarduera/zerbitzu berriak aurreikusi dira. Beraz, daitekeena da hizkuntza paisaian eragitea.
Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan	Bai	Jarduera/zerbitzu berriak aurreikusi dira. Beraz, daitekeena da euskarazko eskaintzan eragitea
Adierazpen publikoetako euskararen erabileran	Bai	Ez dago adierazpen publikoetako euskararen erabilera aldatuko den edo ez aurreikusteko datu nahikorik LZPan. Alabaina, biztanle berriek eragina izan dezakete.

Eragin linguistikoa identifikatzeko eta baloratzeko galdetegia

Bost alderdi hartzen ditu kontuan galdetegiak: **bizi-kalitatea** (arreta jarriz tokiko jendea bertan geratzeko, alde egiteko edo kanpoko jendea bertara etortzeko aukerei), **ekonomia** (arreta jarriz enplegu-aukerei, bizi-kostuari eta etxebizitzaren kostuari), **azpiegiturak** (komunitatearen beharretarako nahitaezkoak direnak; besteak beste, eskolak, osasun-zaintza eta oinarrizko zerbitzuak), **komunitatearen gizarte eta kultura bizitza** (arreta berezia jarriz gazteekin lotura duten ekintzei) eta **biztanleria** (biztanleria-mailak eta ezaugarriak).

33 galderetako 20ri baiezko erantzuna eman zitzaien. Hona emaitza:

7. taula. ELE. Faktorez faktoreko galdetegia

Bizi kalitatea	BAI/EZ
1. Proiektuak eragina izan dezake pertsonen mugikortasunean?	Bai
2. Proiektuak izango al du eraginik bertako biztanleen osasunean eta bizi kalitatean, jendea bertatik joatera behartuz?	—
3. Proiektuak eragina izango al du inkurumenean, jendea bertatik joatera behartuz?	
4. Proiektuak izango al du eraginik bertako jendearen bizi-mailan? (bizimodua	
Ekonomia	
5. Proiektuak eraginik izango al du tokiko negozioetan (dendak, ostalaritza-establezimenduak...)?	Bai
6. Proiektuak eraginik izango al du tokiko lanpostuetan?	Bai
7. Sortuko dituen lanpostuak bertako biztanleek beteko dituzte?	Bai
8. Proiektuak eragina izango al du bertako soldata-mailetan?	—
9. Proiektuak eragina izan dezake establezimenduetako/enpresetako ahozko edo idatzizko komunikazioan?	Bai
10. Proiektuak eragina izan dezake establezimenduetako/enpresetako hizkuntza paisaian?	Bai
11. Proiektuak eragina izan dezake establezimenduetako/enpresetako jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan?	Bai
12. Proiektuak bultzatuko al du ekonomia aniztasun handiagoa egotea?	—
13. Proiektuak eragina izango al du etxebizitzaren batez besteko kostuan?	—
Azpiegiturak	
14. Proiektuak eragina izango al du tokiko eskoletan?	Bai
15. Eragina izango al du ikasle euskaldunen eta erdaldunen arteko orekan?	Bai
16. Proiektuak eragina izango al du tokiko osasun-zerbitzu eta baliabideetan?	Bai
17. Aldaketarik eragingo al dio oinarrizko zerbitzuen hornidurari (dendak, posta bulegoak, bankuak, ostalaritza-establezimenduak...)?	—
18. Proiektuak erraztu egingo al du toki horretarako sarbidea?	
19. Proiektuak aldatu egingo ditu garraiorako azpiegiturak (eskola-garraioa, larrialdi-garraioa/anbulantzia zerbitzua, taxi zerbitzua)?	Ez
Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza	
20. Proiektuak eragingo al du gatazkarik edo zatiketarik euskaldunen komunitatean?	—
21. Izango al du eraginik komunitateko kideengan, talde batzuei mesede eginez eta beste batzuei kalte?	—
22. Proiektuak aldatetarik eragingo al ditu bertako tradizio/kultura euskaldunean?	Bai
23. Eraginik izango al du tokiko eskoletan dauden ereduetan?	—

24. Proiektuak eragina izango al du elkarteetako hizkuntza erabileran (gazte-, kultura-, kirol-, aisialdi-elkarteak, etab)?	Bai
25. Proiektuak eragina izango al du elkarteetako komunikazioan (gazte-, kultura-, kirol-, aisialdi-elkarteak, etab)?	Bai
26. Proiektuak eragina izango al du elkarteetako adierazpen publikoetan (guraso-, gazte-, kultura-, kirol-, aisialdi-elkarteak, etab)?	Bai
Biztanleriaren ezaugarriak	
27. Proiektuak handitu egingo du bertako biztanle kopurua?	Bai
28. Proiektuak aldatu egingo ditu bertako biztanleriaren ezaugarriak?	Bai
29. Proiektuak aldaketarik ekar dezake biztanleriaren euskararen ezagutzan?	Bai
30. Proiektuak aldaketarik ekar dezake biztanleen euskararen erabileran?	Bai
31. Proiektuak handitu egingo du bertako bisitarien kopurua?	Bai
32. Proiektuak aldatu egingo ditu bisitarien ezaugarriak?	—
33. Proiektuak aldatu egin dezake bertakoen adin-egitura? Hau da, herritik kanpora joatera edo herrira bizitzera etortzera bultzatuko al ditu gazte, adin ertaineko edo adinez nagusi euskaldunak?	Bai


Eragin linguistikoaren indize orokorra

Eraginaren garrantziaren eskalaren arabera ez zen alderdi kritiko edo larririk identifikatu. Moderatuen artean leudeke indize altuena dutenak: Biztanleriaren Ezaugarriak (-45.83) Bizi Kalitatea(-37) eta Komunitatearen gizarte eta kultura bizitza (-35.5). Eraginaren garrantzia txikia aurreikusitako zen Ekonomia eta Azpiegitura ataletan.

8. taula. ELE. Eraginaren eskala

ALDERDIAK	GUZTIRA
Bizi kalitatea	-37,0
Ekonomia	-0,83
Azpiegiturak	8,67
Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza	-35,5
Biztanleriaren ezaugarriak	-45,83

Eraginaren garrantziaren eskalaren arabera ez zen alderdi kritiko edo larririk identifikatu. Moderatuen artean leudeke indize altuena dutenak: Biztanleriaren Ezaugarriak (-45.83) Bizi Kalitatea(-37) eta Komunitatearen gizarte eta kultura bizitza (-35.5). Eraginaren garrantzia txikia aurreikusi zen Ekonomia eta Azpiegitura ataletan.



Eragin linguistikoaren ebaluazioa atalez atal

Ebaluazio taldekoek alderdi bakoitzaren gainean egindako irakurketaren laburpena duzue ondorengo lerrootan:

1. Bizi kalitatea

Tolosaldeko Lurralde Zatik Planak jasotzen dituen ekintzek, bizi-kalitateari dagokionean, mugikortasunean eragingo dute, batez ere. Mugikortasuna gehitzeak, batetik, bizi-kalitatean biztanleengan eragin zuzena izan dezake, eta bestetik, eskualdetik kanpoko jendea etortzea erraztu egiten du, eta horrek eragin linguistikoa izan dezake.

Tokiko sarbide sare-nagusia eraikitzea aurreikusten da, eta, horrek, eskualdeko herrien arteko harremanak sendotzea ekarriko luke, beraz, euskararen ikuspegitik aukera izan daiteke.

Ekipamenduen kapituluko ekintzek, hala nola, eraikiko den ospitaleak eragin positiboa izan dezakete, bertako hiztuna eskualdetik kanpo mugitzera ez dutelako behartuko.

2. Ekonomia

LZPk eragina izango du Tolosaldeko eskualdeko ekonomian. Eragile nagusiak, aurreikusitako ekonomia/industria jarduerak eta etxebizitza

asentamenduak izango dira eta horien eragin linguistikoa positiboa zein negatiboa izan daiteke.

Ikuspegi positibotik, proiektuak eragina izango du tokiko negozioetan, ekonomia dinamizatu dezakeelako. Tokiko lanpostuak sortzeak biztanleak ez alde egiten laguntzen du, eta hiztunak mantentzen ditu.

Erabilera mistoko etxebizitzak proposatzen dira nagusiki, eta gune berrietan komertzio berria sortuko da, bizilagunekiko hurbilekoa. Tokiko negozioak bertako hiztunei testuinguru egokiagoa ematen die euskarazko harremanak mantentzeko, tokiko harremanak sustatzen direlako. Era berean, ekipamenduen kapituluan jasota dauden ospitaleak eta kultur zentroaren eskaintzak tokiko negozioak mantentzen lagundu dezake.

Ikuspegi negatibotik, establezimendu nahiz enpresa berriak irekitzeak arriskua sortzen du, establezimendu eta enpresek ez badute hasieratik kontuan hartzen euskara ahozko/ idatzizko komunikazioan, hizkuntza-paisaia eta zerbitzu eskaintzan.

Aurreikusita dauden ekipamendu motak (ikerkuntza zentroak, ospitalea, kultura zentroak) aniztasun handiagoa ekarriko dute. Baina ez dago daturik horren eragina baloratzeko, eragina neutroa izan daiteke.

3. Azpiegiturak

Azpiegituren arloan ez da aurreikusi aldaketa esanguratsurik.

Biztanleak gehitzean, tokiko eskoletan matrikulazioa handitu daiteke. Baina, printzipioz, ez luke ikasle euskaldunen eta erdaldunen arteko orekan eraginik izango, D eredu delako nagusi eta joerari eusteko probabilitatea handia delako. Biztanle berriekin, euskara ikasleen lehen hizkuntza modura jaitsi daiteke.

Ospitalea eraikitzeak, jendea bertatik ez joatea bideratu eta harremanetarako probabilitatea handitzen du. Baina harreman horiek euskaraz izan daitezen osasun zerbitzuen inplikazioa ezinbestekoa da, eta arreta euskaraz izango dela bermatzeko neurriak beharko lirateke.

4.100 etxebizitza berri daude aurreikusita Tolosaldean. Etxebizitza guztiak egiten badira, 12.300 biztanleko hazkundera izan daiteke Tolosaldean. Aldaketa progresiboa izango da ziurrenez, eta ez dio zerbitzuen hornidurari aparteko eraginik egingo.

4. Komunitatearen gizarte eta kultura bizitza

LZPan aurreikusita dauden asentamenduen ondorioz etorritako biztanle berriek erdaldun elebakarren portzentajea handitu dezakete, eta beraz ondorio linguistiko nabarmena izango luke.

Sortzen diren ekipamendu berriek egoera berriak sor ditzakete euskarari eragingo lioketenak. Baina, ekipamenduak berak baino, horien kudeaketak eragingo du.

Printzipioz, ez luke hezkuntza ereduaren orekan eraginik izan beharko, D ereduaren delako nagusi eta joerari eusteko probabilitatea handia delako.

Biztanle berriak etortzean erdaldunen portzentajea handitu daiteke. Etorri berriek elkarte berriak sortu edota dagoeneko daudenetakoen partaide izan daitezke. Beraz, litekeena da eragina negatiboa izatea, elkarteetako hizkuntza erabileran, komunikazioan eta adierazpen publikoetan.

5. Biztanleriaren ezaugarriak

Biztanleriaren ezaugarrietan LZPak izan dezakeen eragina nabarmena da. Bi dira horretan eragiten duten kapituluak, etxebizitza asentamenduak batetik, eta industria/ekonomia asentamenduek bestetik.

Bi faktore dira larrienak, biztanle kopuruari dagokiona bata eta euskararen erabilerari dagokiona bestea, -67 eta -55eko puntuazioarekin hurrenez hurren.

Etxebizitza asentamenduetara biztanle berriak etorriko dira, garapen handieneko gunera nagusiki. Etorriko direnen ezagutza mailaren proiektzioa eginez gero, euskararen ezagutzaren galera aurreikus daiteke. Tolosaldean ezagutza %6.7 jaitsiko litzateke.

Bestalde, industria/ekonomia jarduera kapituluak bi mailatan eragin dezake bisitari eta biztanleriaren ezaugarrietan. Batetik biztanle berriak etorri daitezkeelako, eta bestetik, biztanleei zerbitzua emango dien edota biztanleek lan egingo duten gunek izan daitezkeelako. Ezarriko diren zerbitzu edo komertzio gunek bisitariak erakar ditzakete. Erakartzen den jendea eskaintzen denaren arabera izango da.

9. taula. Euskararen ezagutzaren proiektzioaren taula

Udal - barrutia	Biztanle Guztiak*	Biztanle Euskaldunak	Euskaldunen % LZParen proiektzioaren arabera	Euskaldunen % gaur egun	Galera %
Abaltzisketa	352	297	88,5	94,1	5,6
Aduna	488	385	82,4	86,4	4,0
Albiztur	329	270	86,3	92,1	5,8
Alegia	2165	1373	70,2	76,7	6,5
Alkiza	391	311	83,6	88,5	4,9
Altzo	396	307	81,6	86,6	5,0
Amezketeta	1146	874	83,0	91,9	8,9
Anoeta	2598	1307	61,9	71,2	9,3
Asteasu	1675	1196	75,6	80,0	4,4
Baliarrain	143	120	88,7	95,8	7,1
Belauntza	334	237	75,1	79,4	4,3
Berastegi	1162	916	82,9	87,9	5,0
Berrobi	701	448	70,8	77,5	6,7
Bidania- Goiatz	591	466	82,7	87,4	4,6
Elduain	263	213	85,5	91,4	5,9
Gaztelu	198	158	85,4	92,6	7,3
Hernalde	392	289	77,6	81,8	4,2
Ibarra	5924	2755	57,8	65,1	7,4
Ikaztegieta	572	369	71,8	79,11	7,3
Irura	1850	1172	68,4	72,78	4,3
Larraul	273	214	81,7	85,77	4,1
Leaburu	428	312	77,1	81,50	4,4
Lizartza	769	534	75,6	82,27	6,7
Orendain	201	158	83,3	89,29	6,0
Orexa	132	109	87,7	95,33	7,6
Tolosa	23362	12137	60,4	66,13	5,7
Villabona	6994	3847	61,8	66,54	4,7
Zizurkil	4472	1909	57,2	67,65	10,4
E.F. guztira	58301	32707	64,4	71,10	6,7

**Etxebizitza
asentamendue-
tara biztanle
berriak etorriko
dira, garapen
handieneko
gunera nagusiki.
Etorriko direnen
ezagutza
mailaren
proiektzioa eginez
gero, euskararen
ezagutzaren
galera aurreikus
daiteke.
Tolosaldean
ezagutza %6.7
jaitsiko litzateke.**

ONDORIOAK

I

Ondorio orokorrak

Aztertutako bost atal nagusien artean, ez zen atal bat bera ere nabarmendu larri edo kritiko moduan. Alabaina, faktorez faktore aztertzerakoan, bi faktore identifikatu zituzten *larrien* artean: **proiektuak bertako biztanle kopuruan izango duen eragina** batetik, eta **proiektuak euskararen erabilera izango duen eragina** bestetik.

Eragin hori horrela gauzatu daitekeela aurreikusi zen euskararen eza-
gutzaren proiektzioarako egindako indizean. LZPa bere osotasunean
ezarriko balitz euskararen ezagutza Tolosaldean %6.7 jaitsi zitekeela,
inolako neurri zuzentzailerik aplikatu ezean.

Bestalde, moderatuen artean egon arren, kontuan hartu beharrekoak
dira ondorioztatu zen faktore hauek ere:

- Proiektuak ekarriko duen hazkundera bisitari kopuruan (-44)
- Proiektuak izan dezaken eragina elkarteetako erabilera (-38), ko-
munikazioan (-38) eta adierazpen publikoetan (-38)
- Proiektuak mugikortasunean izango duen eragina (-37)
- Proiektuak izan dezakeen eragina establezimenduetako eta enpresen
erabilera (-25), hizkuntza paisaia (-31) eta euskarazko eskaintza (-28).
- Proiektuak izan dezakeen eragina tradizio/kultura euskaldunean (-28).
- Proiektuak izan dezakeen eragina ikasle euskaldunen eta erdaldunen
arteko orekan (-27).

Ondorioak herriz herri

Herriz herriko ondorioak ateratzeko indize osagarriez -hauskortasun
indizea, LZPren eraginaren indizea eta euskararen ezagutzaren proie-
ktzioaren indizea- baliatu ziren ebaluazio taldeko kideak.

Ikusi ahal izango duzuen moduan, herri euskaldunenak eta gehienetan
biztanle gutxien dutenak dira hauskorrenak ,eta, hortaz, LZPren
edozein eraginen aurrean kalteberagoak liratekeenak. Ebaluazio
txostenean azpimarratu zen moduan, gainera, herri horietako batzuek
ez dute inolako jarduera planik edo egiturarik euskara sustatzeko, eta,
ondorioz, hauskoragoak izan zitezkeela.

Honakoa da Tolosaldeko herrien hauskortasun indizea.

10 taula. Tolosaldeko herrien hauskortasun indizea

	Indizea	
Abaltzisketa	21,00	HANDIA
Aduna	14,50	HANDIA
Albiztur	20,50	HANDIA
Alegia	9,50	ERTAINA
Alkiza	18,50	HANDIA
Altzo	14,50	HANDIA
Amezketza	15,50	HANDIA
Anoeta	8,00	ERTAINA
Asteasu	13,00	ERTAINA
Baliarrain	18,50	HANDIA
Belauntza	14,00	ERTAINA
Berastegi	15,00	HANDIA
Berrobi	14,50	HANDIA
Bidegoian	16,50	HANDIA
Elduain	19,50	HANDIA
Gaztelu	15,50	HANDIA
Hernalde	16,00	HANDIA
Ibarra	8,50	ERTAINA
Ikaztegieta	12,50	ERTAINA
Irura	8,00	ERTAINA
Larraul	18,50	HANDIA
Leaburu	13,50	ERTAINA
Lizartza	14,00	ERTAINA
Orendain	15,00	HANDIA
Orexa	17,50	HANDIA
Tolosa	5,50	TXIKIA
Villabona	6,50	TXIKIA
Zizurkil	10,00	ERTAINA

**Herri
euskaldunenak
eta gehienetan
biztanle gutxien
dutenak dira
hauskorrenak,
eta, hortaz,
LZParen edozein
eraginaren aurrean
kalteberagoak
liratekeenak.
Ebaluazio
txostenean
azpimarratu zen
moduan, gainera,
herri horietako
batzuek ez dute
inolako jarduera
planik edo
egiturarik
euskara
sustatzeko, eta,
ondorioz,
hauskorragoak
izan zitezkeela.**

Indize honetan ikus daitekeenez, hauskorrenak Abaltzisketa, Albiztur eta Elduain lirateke, eta, ondorioz, gehien zaindu beharrekoak.

Ondoren datorren taulan LZParen eraginaren indizea jaso zen herriz herri. LZPak herri bakoitzari zein mailatan eragingo zion jasotzea izan zen helburua, izan baitaiteke herri bat hauskorra izatea baina era berean planak herri horri ez eragitea.

Proiektuan proposatzen diren ekintzak zehaztasunez jasotzen ez badira ere, estimazio bat egin zen definitzen diren etxebizitzien eta jarduera ekonomikoen kokapena eta tipologiaren arabera.

	Indizea	
Abaltzisketa	17,67	TXIKIA
Aduna	22,00	ERTAINA
Albiztur	20,67	ERTAINA
Alegia	34,67	ERTAINA
Alkiza	22,00	ERTAINA
Altzo	23,00	ERTAINA
Amezketeta	23,67	ERTAINA
Anoeta	41,00	HANDIA
Asteasu	31,33	ERTAINA
Baliarrain	16,67	TXIKIA
Belauntza	27,67	ERTAINA
Berastegi	18,00	TXIKIA
Berrobi	30,67	ERTAINA
Bidegoian	26,33	ERTAINA
Elduain	20,00	ERTAINA
Gaztelu	15,00	TXIKIA
Hernalde	24,67	ERTAINA
Ibarra	44,00	HANDIA
Ikaztegieta	34,33	ERTAINA
Irura	31,00	ERTAINA
Larraul	17,00	TXIKIA
Leaburu	22,33	ERTAINA
Lizartza	25,33	ERTAINA
Orendain	15,00	TXIKIA
Orexa	16,33	TXIKIA
Tolosa	38,00	HANDIA
Villabona	38,00	HANDIA
Zizurkil	45,00	HANDIA

Horrela, komunikazioko korridore nagusiaren inguruko herriek eta hortik hurbil kokatzen direnek jasaten zutela LZPren eraginik handiena ondorioztatu ahal izan zen.

Bi indizeak gurutzatu ziren, herririk hauskorrenak eta eraginik handiena jasan dezaketenen arteko harremana ikusi ahal izateko.

12. taula. HAUSKORTASUN INDIZEA ETA LZPAREN ERAGIN INDIZEA

LZPAREN ERAGIN INDIZEA	HAUSKORTASUN INDIZEA			GUZTIRA
	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA	
HANDIA		Zizurkil Ibarra Anoeta	Villabona Tolosa	5
ERTAINA	Hernalde Aduna Albiztur Elduain Alkiza Altzo Amezketan Bidegoian Berrobi	Lizartza Leaburu Irura Alegia Ikaztegieta Belauntza Asteasu		16
TXIKIA	Abaltzisketa Orexa Orendain Larraul Gaztelu Berastegi Baliarrain			7
GUZTIRA	16	10	2	28

Taula ikusita, honakoa litzateke lehentasunez kontuan hartu beharreko herrien sailkapena:

Lehenik, hauskortasun handia dutenen artean LZPAREN eragin ertaina jasaten dutenak: Hernalde, Aduna, Albiztur, Elduain, Alkiza, Altzo, Amezketan, Berrobi eta Bidegoian.

Bigarrenik, LZPAREN eragin handia dutenen artean kontuan hartzeko taldea da hauskortasun ertaina duten herriak: Zizurkil, Irura, Ikaztegieta, Alegia, Ibarra, Asteasu, Anoeta.

Hirugarrenik, hauskortasun txikiagoa izan arren, duten biztanle kopuruagatik kontuan hartzeko da LZPAK Villabonan eta Tolosan izango duen eragina.

**Aipatu behar da
Tolosaldeko
LZPren eragin
linguistikoaren
ebaluazio
txostena
aurkeztu ostean
egindako
dinamika batean
landu zirela
neurri
zuzentzaileak.**

NEURRI ZUZENTZAILEAK

I

Behin ebaluazio lanak emandako emaitza jasota, aurreikusitako eragin kaltegarriak saihesteko neurri zuzentzaileak proposatzea da ELE tresnak jasotzen duen bigarren urratsa. Neurri zuzentzaileak proposatzea parte-hartze prozesuen bidez egitea gomendatzen du tresnak, ELEk karta-eredu bat jasotzen badu ere eranskinetan, helburua da eragin eremuko komunitateak erabakitzea, tartean diziplina anitzeko adituak egonda, noski, zein neurri zuzentzaile proposatu.

Aipatu behar da Tolosaldeko LZPren eragin linguistikoaren ebaluazio txostena aurkeztu ostean egindako dinamika batean landu zirela neurri zuzentzaileak. Aurkezpen bilera horretan elkartu ginen, besteak beste: ebaluazio lantaldeko kideak, GFAko euskara zuzendaria, Hirigintza Lurralde antolaketako zuzendaria, aldundiko euskararen normalizazioko teknikariak, UEMAko teknikariak, Tolosaldeko udaletako ordezkariak eta hirigintza arloko zein euskara teknikariak.

Neurri zuzentzaileei dagokionez, batetik, Lurralde Antolaketari dagozkionak zehaztu ziren, eta bestetik, LZPren garapenetik harago doazenak, hau da, hirigintza plangintza eta kudeaketa. Kudeaketan jaso zituzten eragin linguistiko larria eta moderatuen artean identifikatutako faktoreei proposatutako neurri zuzentzaileak.

Honakoak izan ziren proposatutako neurri zuzentzaileetako batzuk:

Lurralde antolaketa

— LZPtik eratorritako proiektuetan ere, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea. Eta ebaluazio horren emaitzaren araberrako irizpideak zehaztea.

— Arnasguneen beharrak asetzeko tokian tokiko ekipamenduak sortzea, eskualdeko erdiko ardatzak izan dezaken erakarpen indarra, eta harekiko dependentzia saihesteko.

Hirigintza plangintza

— Eragin negatiboa izan dezaketen proiektuak denboran luzatzea, in-paktua leunagoa izan dadin edo ezarri ahala neurriak har daitezten.

— Planak formulatzeko oinarrietan, datu linguistikoak ere jasotzea: Ezagutza, lehen hizkuntza, etxeko erabilera eta kale erabilera, euskararen

inguruko egituraketa (euskara zerbitzua, UEMA) eta hezkuntza ereduak.

— Hauskortasun indize altua duten herrien udal plangintzak sakon aztertzea eskaintzen duten etxebizitza berrien eta jarduera berrietarako eraikinen tipologia eta ezaugarriak, betiere, ardatz izanik, biztanle berrien integrazioa. Hala, ondorengo neurriak proposatzen dira: etxebizitza berrietarako sarbidea oinezkoen espazioetatik egitea, partzela pribatuen itxitura alturan mugatzea, etab.

— LZParen eragin linguistikoaren arrisku maila altua duten herriek, eragin hori murrizteko neurri bereziak hartzea, hala nola, plangintzan aurreikusten diren asentamendu berrien garapenerako exekuzioa epeak denboran luzatuz, betiere, helburu izanik biztanleriaren oreka linguistikoa bermatzea (jasangarritasun linguistikoa).

KUDEAKETA

I

Orokorra

— Arnasgunez eta Lurralde Antolaketaz prestakuntza bideratzea, bereziki legegintzaldi hasieran, ardura politikoa duten guztientzat, lurralde plangintzek duten eraginez eta ondorioez jabetu daitezten.

— Prestakuntza ematea herritarrei plangintzak zehazterakoan, lurralde plangintzak duten eraginak eta horien ondorioen inguruan.

— EBPN ESEPen proposatzen diren neurri eta ekintza orokorren katalogoan arnasguneei begira beren-beregi landutakoak jasotzea.

— EBPN/ESEPen proposatzen diren neurri eta ekintza orokorren katalogoan Lurralde Antolaketa eta Hirigintza Plangintzaren eraginei begirako neurriak eta ekintzak jasotzea.

Biztanle berriak

— Biztanle etorri berri guztientzako harrera planak egitea. Harrera-planetan ardatza euskara izatea.

— Babestutako etxebizitzaren kasuan, herritarren beharrak kontuan hartzea, eta horiei lehentasuna ematea.

— Babestutako etxebizitzaren kasuan prozesu osoa euskaraz garatzea.

— Etxebizitza libreen sustatzaileei eskatzea, lehen-lehenik tokiko komunikabideetan eman dezatela eskaintzaren berri.

Biztanleriaren ezagutza

— Etorri berrien hizkuntza ezagutza bideratzeko neurriak hartzea. Euskaraz ikasteko diru-laguntzak, sustapen kanpainak, mintzalagun...

— Sentsibilizazio/Motibazio saioak egitea herritarrentzat, euskararen erabileran atzera egin ez dezaten eta etorri berriak ikasteko beharra sentitu dezaten.

Biztanleriaren erabilera

— Euskara ikastaroak, harrera ikastaroak eta mintzalagun egitasmoa eta antzekoak egitea herritarrekin sortuko diren hizkuntza-ohiturak euskarazkoak izango direla bermatzeko.

— Hizkuntza portaera landuko duten ikastaroak egitea, euskaldunen ahalduntzea lantzeko.

Establezimendu eta enpresak (hizkuntza paisaia, euskarazko eskaintza, erabilera)

— Eremu funtzionalean jarduera jartzeko interesa duten saltoki edo establezimenduetan euskararen erabilera plan edo ziurtagiria izatea balaratzea eta lehentasuna ematea.

— Azpiegitura berriak eraikitzen diren kasuetarako (industriaguneak, komertzioak, geltokiak...), hizkuntza irizpideak ezartzea

— Euskara Planak sustatzea ezartzen diren industria/zerbitzuetan

— Onurak eskaintzea euskaraz lan egiten dutela edo zerbitzua euskaraz eskaintzen dutela ziurtatzen dutenen enpresei

Elkarteak (erabilera, komunikazioa, adierazpen publikoa)

— Funtzionamendu-irizpideak herriko talde eta elkarteentzat (guraso-, kultur-, kirol-taldeak...), ordura arte bezala euskaraz funtzionatzen jarraitzeko.

— Hitzarmenak, aholkularitza eta laguntzak bideratzea euskara planak garatzeko

Bisitariak (jarduera ekonomikoak, ekipamenduak, azpiegiturak...)

— Bisitariak ugarituko diren kasuetarako, sentsibilizazio- eta kontzientziazio-saioak herriko merkatariekin, euskaraz funtzionatzen jarraitzeko.

Mugikortasuna (jendearen joan etorria areagotzea)

— Azpiegitura berriak eraikitzen diren kasuetarako (industriaguneak, komertzioak, geltokiak...), hizkuntza irizpideak ezartzea: hizkuntza paisaia eta zerbitzua euskaraz.

— Lanerako bertako biztanleei lehentasuna emateko neurriak eta laguntzak, kanpora bizitzera joan behar ez izateko lan-kontuengatik.

ELE TRESNAREN INGURUKO ONDORIO OROKORRAK

I

Eragin linguistikoaren ebaluaziorako tresnaren marko teorikoa lantzetik praktikarako saltoa eman dugu lehen ariketa honekin eta emaitza guztiz positiboa izan dela baieztatu beharrean gaude. Une garrantzitsu bat markatu du euskararen normalizaziorako norabidean, finean, lanmolde berri baterako bidean lehen urratsa izan dela irizten baitiogu.

Lehen aldiz diziplina anitzeko adituak elkarlanean jarri ditugu hizkuntzaren inpaktua aurreikusten eta hizkuntza zeharlerrotasunean landu beharraren garrantzia agerian utzi du praktika honek.

Tresnari dagokionez, batetik, aplikagarria dela baieztatu ahal izan dugu. Ebaluazioak hainbat datu utzi dizkigu, eraginaren nolakotasunaren argazkia atera eta aurreikuspen bat egin ahal izan dugu. Eragin kaltegarria saihesteko neurriak proposatu ziren ordezkari zein teknikariei Villabonan egindako aurkezpen bileran eta jasota geratu dira.

Tresna baliagarria dela frogatzeaz gain, talde ebaluatzaileak hainbat ekarpen egin ahal izan dizkiote tresnari. Esanguratsuenak hiru indize osagarriak izan dira: hauskortasun indizea, LZPren eraginaren indizea eta euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizea. Hiru indize horiek jasota geratuko dira aurrerantzean ELE tresnan.

Horrez gain, galdetegi labur zein zehatzari aldatetarako hainbat proposamen egin dizkiote. Besteak beste, tresna doitzea proiektu motaren arabera, oinarrizko faktore nagusi batzuk mantendu eta beste batzuk proiektuaren arabera egokituz; Alderdi batzuetan informazio zehatzik

**Eragin
linguistikoaren
ebaluaziorako
tresnaren marko
teorikoa
lantzetik
praktikarako
saltoa eman dugu
lehen ariketa
honekin eta
emaitza guztiz
positiboa izan
dela baieztatu
beharrean gaude.
Une garrantzitsu
bat markatu du
euskararen
normalizaziorako
norabidean.**

Praktika ororen gainetik, EL Eren aplikazioa beharrezkoa izateko neurriak hartzea izango da hurrengo urratsa eta bertan jasotako neurri zuzentzaileak lotesleak izan daitezkeen marko juridikoa aldatzea. Izan ere, neurri zuzentzaile ororen gainetik, arnaguneak aitortu eta babestuko dituen lege edo arauaren beharra azpimarratu behar da.

ez dagoenean, hori bera ere baloratzea, neurketa falta arriskuaren adierazgarri izan daitekeelako; hainbatetan datu objektiborik ezean, zalan-tzaren aurrean, prebentzio ikuspegitik badaezpadako eragin negatiboa aurreikustea ebaluazioa egiterakoan, etab.

Dena dela, hirigintza plan baterako egokia izan badaiteke ere tresna, asmoa da bestelako proiektuetan ere (kultur egitasmo, gizarte zerbitzu, kontratazio...) aplikatu ahal izatea. Kasu horietan zerbitzuburu, udaleko idazkariak betetzeko moduko tresna bat ere izatea balioetsi dugu. Horregatik, bertsio murriztago baten beharra zegoela ondorioztatu genuen. Eta hizkuntzari buruzko galderak soilik sartuko zituen galdetegi erabilgarriagoa sortu genuen, 11 adierazle eta 9 atributu izango dituen tresna.

Praktika ororen gainetik, EL Eren aplikazioa beharrezkoa izateko neurriak hartzea izango da hurrengo urratsa eta bertan jasotako neurri zuzentzaileak lotesleak izan daitezkeen marko juridikoa aldatzea. Izan ere, neurri zuzentzaile ororen gainetik, arnaguneak aitortu eta babestuko dituen lege edo arauaren beharra azpimarratu behar da. Horrek alde zuzentzaileak zehazteaz gain, neurri zuzentzaileak bideratzea erraztuko lukeelako. Horra, beraz, etorkizuneko erronka nagusia. ●

ERREFERENTZIAK

2015eko otsailaren 5 eta 6an egin ziren Lurraldea eta Hizkuntza II. jardunaldietan ELE tresnaren eta kasu praktikoa honen aurkezpenak egin ziren. Bideoa ikusi nahi izanez gero:

<https://www.youtube.com/watch?v=N1AeQA7wMeY>

Aurkezpenak egiteko erabili ziren euskarriak honako helbideetan eskuragai:

http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/copy_of_soziologia/tolosaldeko-esperientziaren-aurkezpena

http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/copy_of_soziologia/eragin-linguintikoaren-ebaluazioa-ele

Tolosaldeko Lurraldearen Zatiko Planari buruzko informazio zehatza orrialde honetan aurki daiteke:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-565/eu/contenidos/informacion/aprobacion_inicial_ptp_tolosa/eu_def/index.shtml

Galesen erabiltzen duten tresna izan genuen abiapuntu nagusia galdetegi sortzeko. Ondorengo txostenean informazioa:

http://www.eryri-mpa.gov.uk/_data/assets/pdf_file/0015/24360/linguistic_impact_assessment_eng.pdf

Ingurumen inpaktuetan erabiltzen den SIN CANTER metodologia izan da oinarri indizea ateratzeko. Iturria: Conesa Fernández Vítora (1997); Viladrich y Tomasini, 1999. Informazio gehiagorako:

<http://es.scribd.com/doc/256777620/Metodologia-Para-Los-Estudios-de-Impacto-Ambiental-SIN-CANTER#scribd>

Indizeei buruzko informazio osatuagoa jaso nahi izanez gero: ARTEZ (2014).

[Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Zatiko Planaren Eragin Linguistikoaren Txostena](#) 12.13.14.15.16.17. orrialdeetan

Tresnari buruzko eta kasu praktikoa honi buruzko informazio osatua goa:

Gipuzkoako Foru Aldundia eta UEMA. *ELE-hizkuntzaren prebentziorako araudia*. Argiratu gabea. Informazioa jaso nahi izanez gero, jo bi erakunde horietako batengana.

Artez Euskara Zerbitzua, Torrene consulting, BAI arkitektuta BAI hirigintza (2014). [Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Zatiko Planaren Eragin Linguistikoaren Txostena](#). Argitaratu gabea. Informazioa jaso nahi izanez gero jo Artez Euskara Zerbitzura.